



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2017ko iraila · 331. alea

TOKIKOM

# Eraikin hutsak

Trahs  
Natur



www.trahsnatur.com



## AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Maria Jesus Arribas
- 6 Begira** Udako argazkien lehiaketa
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 12 Argazki bidez** Auzoetako jaiak
- 14 Plazan bazan** Umeendako jolasak
- 18 Erreportajea** Eraikin hutsak
- 22 Kirola** Marraskilo Tour
- 24 Kultura** Benito Lertxundi eta Bertso eskola
- 26 Nondik nora** Hasier Ugarte
- 28 Sakonean** Plazentziatarrak munduan
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3 Neuretik** Cris Jacas *Amb il-lusio!*
- 16 Gutunak** Tokikom *Elkartasuna El Vallenc, Francesc Fàbregas eta ACPCrekin*
- 16 Gutunak** Berbalagunak *Eskerrik asko Maite*
- 16 Komiki tira** *Genero berdintasuna*
- 17 Zir(r)ika** *Katalunia*
- 17 Puntua** Jon Gabilondo *"raciones, bocatas..."*



**Pil-pilean**  
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus) • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Telefonoa

943 75 13 04  
**Erredakzioa**  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
[egoitz@pilpilean.eus](mailto:egoitz@pilpilean.eus)

### Publizitatea

[publizitatea@pilpilean.eus](mailto:publizitatea@pilpilean.eus)  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Azala** Fernan Oregi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea

### Inprimategia

Gertu Koop.  
**Banaketa** Pil-pilean Ekoizpena  
**Lege Gordailua:** SS-537-2000  
**Tirada:** 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Amb il·lusió!



Cris  
Jacas

Katalunian zer gertatzen ari den deskribatzeko hitz bat aukeratu beharko banu, ilusioa hitza aukeratuko nuke. Bai, hori delako haserre dagoen katalana (“el català emprenyat”), denbora, lana eta batasunarekin ilusionatutako katalan bihurtzen duen prozesua.

Ilusioa giroa da, kalean arnasten dena, lana ondo eginda dagoen konbentzimendua, hankak lurrean izatea eta, hala ere, ahal dela jakitea.

Ilusioa da batzuen harresi eta isiltasuna besteen indar eta nahian transformatzea, ulertaraztea

euforia eta errebindikazioa ez direla iragankorrak, bizilagunei ikusaraztea serio ari garela, eta, gerta ala gerta, irabazi egingo dugula jakitea, ezin baikaituzte gelditu.

Ilusioa errepresioa kolapsatzea da, beldurra desagertaraztea da, pentsaezina dena ere pentsatzea, hitz egiten duen

herria entzuna dela jakitea, momentuaz gozatzea. belaunaldi guztien elkarlana bateratuz, ulertzea gu, belaunaldi bezala, pribilegiatu batzuk gara.

Ilusioa da burua erabiltzea, pazientzia izatea eta intuizioa. Argi izatea denok garela arduradun eta ikustea iritsi dela egiaren unea.

Ilusioa zure herria kalean ikustea da, arrosak banatzea, armak hautestontziekin borrokatzea.

Ilusioa atzera kontaketa bat da.

Ilusioa bozkatzea da.

Erabakitzeke libre izatea da ilusioa.

**“Ilusioa zure herria kalean ikustea da, arrosak banatzea, armak hautestontziekin borrokatzea”**

# Maria Jesus Arribas

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Berrogeita bat urte eman ditu Caritasen boluntario moduan eta uda aurretik eman du amaitutzat boluntariotza. Izango da gutxiago egindakoren bat. **Zela hasi zinen Caritasen?**

28 urterekin hasi nintzen. Don Jose Javier Portu zegoen orduan parroko eta berak proposatu zidan. Orduan, Caritaseko lana oso ezberdina zen.

## **Zertan zen ezberdina?**

Oso jende gutxi etortzen zen Caritasera. Bazegoen kanpotik etorritako jendea, Espainiatik etorritakoak-eta, baina apopilo egoten ziren eta lan asko zegoen. Orain dela hamar urte aldatu zen dena. Orditik, behar handia dago eta arazo gehiago. Krisiak egon dira lehenago ere, baina orain mentalitatea bestelakoa da, zeren, orain, badakigu gorago ez dugula egingo.

Lehen ere izango zen beharra, baina orain dela berrogei urte bizimodua oso ezberdina zen. Orduan ez zegoen autorik, ez mobilik... Aurrerapenak izango dira horiek, baina gastuak ere badira, eta eragozten dute bizi izateko dirua izatea: janaria erosteko, umeen gastuak ordaintzeko... Hala ere, guregana datorren jendea harrokeria handirik barik ibiltzen da, eta etxeetan telebista arruntak izaten dituzte.

## **Ohiko zurrumurrua da “kanpotarrei” gehiago laguntzen diezuela?**

Orain dela bost urtetik bertako jendea ere hasi da hurreratzan. Batez ere, banandu diren emakumeak, lana galdu duten bikoteak, mutil gazteak... Hemengo jendeari kosta egiten zaio guregana etortzea, lehenengo familia eta lagunen laguntza bilatzen dutelako.

## **Zela ikusten duzu herria?**

Jendeak jarraitzen du etortzen, AGI laguntzak kendu ziren arren. Batzuek diote alokairu merkeengatik dela, baina hori ez da horrela. Beharbada fniantzak. Eta udaletxeak ematen duen diruagatik ere ez da, zeren gure udaletxea oso pobrea da, ez dauka dirurik. Batzuetan inguruko udaletxeetatik bidali egiten dituzte, eta gure laguntzek ere izango dute eragina beharbada. Ez dakit.

## **Caritasek zein funtzio betetzen du zure ustez?**

Nik uste dut Caritasek lan handia egin duela. Urteotan diru asko banatu dugu, zorionez jendeak diru asko ematen diolako elizari.

## **Baten batek esan lezake laguntzea instituzioen lana dela eta Caritasek karitatea banatzearekin ez duela ezer konpontzen.**

Galdetu diezaiola jendeari. Nik badakit karitatea dela eta beste batzuek emandako diruarekin dihardugula. Izan

dugu gazte baten kasua, gazte batena. Zazpi urterekin etorri zen Euskal Herrira eta hemezortzi urte bete dituenean kalean gelditu dena. Caritasen lana instituzioen lanaren osagarria da.

## **Zenbatekoa izaten da laguntza eta zein baldintza bete behar izaten dira?**

Familiak badira, hiru hilabeteren ostean ematen diegu laguntza, eta norbanakoak badira, sei hilabeteren ostean. Bestelako laguntzaren bat jasotzen badu, Caritasek ez dio ematen. 380 eurotik 600 eurora arteko laguntzak ematen dira, hilean behin. Norbanako gizonezkoei hiru hilabetez ematen zaie, eta familiei, beste laguntzaren bat kobratu arte. Tramitazioetan ere laguntzen diogu jendeari, gure abokatuaren bitartez. Txarrena da gehienek ez dutela formaziorik eta horrela ia ezinezkoa da lana topatzea.

## **Uste duzu jendeak aitortzen duela zuen lana?**

Bai. Nik uste dut une honetan jendeak lehen baino askoz gehiago estimatzen duela gure lana. Egongo da jendea kritikatzan gaituena baina ez dit ardura.

## **Zergatik erabaki duzu erretiratzea?**

Orain, 69 urte ditut eta badut adina jubilatzeko. Semearengana bisitan joateko astia izateko, eta abar.

## **Atzera begiratu eta zer pentsatzen duzu?**

Merezi izan duela. Gau asko pasatu ditut lorik egin barik, baina pozik nago. Batzuk engainatuko ninduten, baina ez dut uste asko izan direnik eta gainera berdin dit. Nahikoa da bizimodua zaila, jatekorik ez duten umeak, erropak, gizonen mende dauden andreak eta abar... Ikasi dut eskuzabala izan behar dela eta bihotz onekoa. Erakutsi dit arazoak erlatibizatzen eta garrantzia ematen eman behar zaionari.

Pertsona on asko ezagutu ditut, umillak eta borondate onekoak, eta horiekin asko ikasi dut. Batzuetan pentsatzen dugu guk laguntzen diegula eurei baina eurak dira guri laguntzen digutenak. Ikusi orduko ematen dizkiguten laztanak, umeen poza...

## **Baduzu erreleborik?**

Ez. Urteetan ibili gara bila, baina inork ez du nahi. Elizara goazenak hirurogei urtetik gorakoak gara eta gazteek ez dute nahi. Gure lana borondatezkoa da, eta normala da. Hala ere, nik animatuko nituzke, zeren asko betetzen duen lana da.

Orain Marga geratu da Caritasen arduradun, baina lan handiegia da pertsona bakarrak egin ahal izateko.

**“Batzuetan  
pentsatzen dugu  
guk laguntzen  
diegula euri,  
baina eurak dira  
guri laguntzen  
digutenak”**

MARIA JESUS ARRIBAS



## Dutxa eta bainua batera

ARGAZKIA ETA TESTUA: ELENA PEREZ

Zergatik aukeratu dutxa edo bainua biak batera hartu ditzakezunean?

Aurrez pentsatu eta prestatu bariko gauza izan zen. Besterik barik, leku horretan egotea suertatu zitzaion, Deban, hondartzako egun patxadatsu hura amaitzera zihoan une hartan. Bat-batean, Amalurraren oparia jaso zuen: denbora berean bainua eta dutxa hartzeko abagunea. Sekula irudikatu gabeko egoera... Kontxo, kontxo... Zorteduna tipoa! *Lehenengo saria udako argazkien lehiaketan*





# Urak agentzia: “Galvanizados Arratek egindako isurketek baimendutako baldintzak betetzen dituzte”



Irailaren 14ko isuria ibaian.

Irailaren 14an, herritar batek Sagar Errekako errekastoko uretan atzeman zuen isurketaren berri eman zion Udalarari. Udalak, udaltzainen bitartez gertaera baieztatu ostean, protokoloari jarraituz, 112ra deitu zuen, larrialdietakoek guardian zegoen Urak agentziako ikuskaria ohartarazi zezaten.

Urak agentziak baieztatu digunez, irailaren 14an salaketa jaso zuten eta dagoeneko analizatu dituzte ikuskariak hartu zituen laginak. Lagin horiek aztertu ostean, Galvanizados Arrate enpresako arduradunekin berba egin dute, eta Urakek honakoa adierazi du: “Galvanizados Arratek egin dituen isurketak baimenduak dira, eta isurketa-baimenean ezarritako baldintzak betetzen ditu, egin ditugun kontrolen arabera”. Agentziak azaldu digunez “enpresa bere isuriak herriko ur zikinen kolektore sistemara bideratzeko zain dago, baina, konexioa egiteko lanak egin barik daude, eta, hori, partzuergoaren ardura da. Bitartean, enpresak baimen berezia

du isurketa zehatz batzuk egiteko eta horiek zuzen bete ditu”.

Gipuzkoako isurien ikuskaritzak txostena egiten dihardu eta bertan zehaztuko omen dituzte lanak egiteko epeak eta ardurak. **Beste ikerketa lerro bat** Urakek jakinarazi digu, beste ikerketa bide bat ere zabaldu duela: “Susmoa dugu inguruan badirela beste isurketa-puntu batzuk, Sagar Errekako errekastora isurketak egiten dituztenak, hobetu beharrekoak. Asmoa dugu azterketak egiten jarraitzeko; hartara, isurketa-iturri horiek saneamendu sistemara bideratzeko. Izan ere, eremu urbanoetan, etorkizunean ez luke zertan isurketarik egon; denak ala denak saneamendu sistemara bideratuta behar lukete eta”.

Bestalde, herritarrei gogorarazi nahi diete, oso garrantzitsua dela halako gertaera bat dagoenean 112ra deitzea, isurketei behar bezalako jarraipena egiteko. Baimendu gabeko isurketen kasuan, isunak 30.000 eurora artekoak izan litezke.

## Egoitzako ortua ustiatzeko zozketa

Mesedeetako Egoitzako Patronatuak oharra kaleratu du, egoitzaren atzealdeko ortua ustiatzeko pertsona baten bila diharduela jakinaraziz. Trukean, inguruko lursailak garbitzeko eskatuko diote. Interesa duten herritarrek urriaren 6ra arteko epea dute izena emateko, ondorengo telefonora deituta: 943 751136.

## Atxuriko igogailua martxan

Joan zen astetik martxan da Atxuriko bigarren igogailua. Alkatearen esanetan, igogailu horren bitartez, egoitzarako irisgarritasuna nabarmen hobetuko da eta egoiliarrek erraztasun handiagoa izango dute kalera ateratzeko. Igogailu berriak bi mailatan egiten ditu geldialdiak, parkean eta lehendik zegoen igogailuaren parean.

## Mus eta tute lehiaketa Lagun Maitean

Urriaren 21erako mus eta tute lehiaketak antolatuta ditu Lagun Maiteak elkarteak. Izen ematea 16:00etatik 17:00etara bitartean egingo da eta bikoteko 10 euro ordaindu beharko dira. Sariak ondorengoak dira:

1. saria: bildots erdi eta ardo botila pare bat.
2. saria: txuleta eta ardo botila.



## Fanny Mertzera

Fanny Mosqueira Jimenez  
(Bolivia, 1981)


Hiru urte inguru dira Fanny bizi izatera Soraluzera etorri zela, aurretik Osintxun bizi zen. Barixaku honetan bertan, mertzeria zabaldu du Santa Anan, lehenago Chip Chop gozotegia zegoen lekolean.

### Zein da Fanny?

Jostuna naiz eta soraluzetar askok jostun moduan ezagutzen naute. Gaztetan monjen kolegioan ikasi nuen, eta bertan ikasi nuen josten.

### Zela erabaki duzu mertzeria zabaltzea?

Mariajek abenduan itxiko ditu atekak eta nik hartuko diot



erreleboa. Ingurukoek asko animatu naute, eta, azkenean, erabaki dut pauso bat ematea. Beti izan dut gogoia neure kontura aurrera egiteko eta emozionatuta nago.

**Zein zerbitzu eskainiko dituzu?**  
Mertzeriako produktuak eskainiko ditut eta baita arregloak egiteko jostun zerbitzua ere: erropak nasaitu, kremailerak josi, izarak eta kortinak...

## Kukumixoko hezitzaileak Ludotekan eta Gaztelekuan



Ludotekako eta Gaztelekuko hezitzaileak.

Datozen bi urteetan Kukumixoko aisialdi taldeak kudeatuko ditu Ludotekaren eta Gaztelekuaren udal zerbitzuak, Pil-pileanek esleipen prozesua irabazi eta gero. Udalak elkarteari 98.722,26 euro (BEZ barne) ordainduko dizkio eta

elkarteari diru hori erabiliko du, koordinatzailearen eta hezitzaileen lana ordaintzeko. Kudeaketa eredu aldatzearekin batera, Udalak amaitutzat eman du duela urte eta erdi zerbitzuak hobetzeko hasi zuen prozesua.

## Maialen Alberdik saria irabazi du telebistan

Irailaren hasieran, Madrilen bizi den Maialen Alberdi soraluzetarrak 4500 euro irabazi ditu Antena 3-ko La Ruleta de la Fortuna telebista saioan. Amarekin zen joatekoa, baina, honek ezin, eta azkenean berak bakarrik eman zuen izena, eta sari nagusia irabazi zuen.

## Aspanogi eguna urrian

Urriaren 21ean egingo da Aspanogi elkartearen aldeko eguna, uda aurretik eguraldi txarragatik bertan behera gelditu zen

# Harrera protokoloa herrira datozenendako



Herrira datozen pertsonentzako harrera egiteko protokoloa diseinatu eta osatu asmoz, Udalak 3 hilabeteko iraupena izango duen parte hartze prozesua abiatu du. Prozesua Euskaltzaleen Topaguneko kide den Ainara Santaquiteriak koordinatuko du, Pilpilean Euskaldunon Elkartearen laguntza-teknikoarekin. Teknikarien ekarpenekin batera, herritarrenak ere jaso nahi dituzte. Urriaren 4an, herritarrentzako bilera irekia egingo da Elkartegian, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

## Auzoko ere martxan

Auzoko, harrera linguistikorako egitasmoak urrian emango dio hasiera ikasturte berriari. Asteartero, Elkartegian batuko dira 15:00-16:30 bitartean, euskaraz elkar ezagutzeko gunea izango da.

## Dokumentala

Urriaren 12an, arratsaldeko 19:00etan, Sorluzeko hizkuntza aniztasuna izeneko dokumentala eskainiko dute antzokian. Auzokoegitasmoaren baitan ekoiztu den dokumentalean, hainbat jatorritako sorluzetarrak azaltzen dira, euren hizkuntzan berba eginez.

# Sorluzetarrek arrakasta izan dute robotika txapelketan



Zapatuan Robotikako gaztetxoan txapelketa jokatu zen Eibarko astelehenan. Lehiaketan, Sorluzeko hamairu gaztetxok parte hartu zuten: Imanol, Antxon, Mikel, Ibai, Oihan, Beñat, Naroa, Naia, Gorka,

Latif, Unax, Hector eta Aitorrek. Eurretariko batzuek bigarren eta hirugarren sariak ere eskuratu zituzten, Sumo combat eta oztopo lasterketako frogetan.

# Bilboko manifestaziora joateko autobusa

Sorluzeko Gure Esku Dagok Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu du zapatu arratsalderako. Autobusa 16:00etan aterako da Estaziñoko geltokitik. Kataluniako prozesuari babesa adierazteko manifestazioarekin bat egin duten eragileen artean daude: EAJ, EH Bildu, Ahal Dugu, ELA, LAB eta Independentisten sarea.

# Mapa morea osatzeko prozesua

Udaleko Berdintasun Batzordeak Sorluzeko Mapa Morea prestatzeko prozesuari ekin dio. Datozen hiru hilabeteetan hainbat bilera egingo dira udalerraren hirigintza genero ikuspegitik aztertzeko. Urriaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, herritarrei zuzendutako batzarra egingo da Antzokian.

# Pinuaren harraren kontrako tratamendua

Debabarreneko basozainak azaldu digunez, egunotan mendian ibili den helikopteroak Vacillus Turingensis izeneko bakteria zabaltzen jardun du, pinuaren harrari kontra egiteko. Aldundiak ezarritako tratamendua ekologikoa da, eta ez du inolako kalterik eragiten.



# BERBA LAGUNA

HARTU, EMAN, ERAGIN.

**IZEN EMATEA:** IRAILAK 18TIK URRIAK 31RA  
<https://labur.eus/soraluze>

Antolatzailea



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzailea



# Auzoetako jaiak

ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO ETA IRAIA DE LOS SANTOS  
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

San Martzialgo eta Mesedeetako jaiak izan ditugu irailean zein baino zein herrikoiagoak eta parte hartzaileagoak.

Jaiotan bizitako giroaren lagin txiki bat baino ez da azpiko argazkiotan jaso duguna, baina oso adierazgarria da transmititzen dutena.

Umorearen eta bizipozaren arabera neurtuz gero, jai handiak dira auzoetako jaiak. Bejondeizuela San Martzial eta Errekalde!

Mesedeetako jaietako zozketan saritutako zenbakiak:

1. 0739 (Maben saldua) Erreserbakoa: 00947 (Asigorren saldua)
2. 1216 (Mendizabal okindegian saldua) Saritua: Irma





# SUDOKU

	■		
		■	●
▲	◆		
		◆	

Oyatu lauki zuriak, ezkerrean figura geometrikoak marrazuz eta eskuinean 1etik 4-rako zenbakiak idatziz. Gogoratu elementu bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko eta lerro bakoitzeko.

3		1
	2	
		2
	1	3


Egilea: Garbiñe Ubeda (Aiuurri)

Soluzioak

[plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak)

## Hondartzan

Behar duzun dibuzio aurki utzi hasieratik ari ondo marrazkuz! Berbetik hartuzko dira. Beste 04. ordea, ez.



## Abordatze!

Hanabi lekuira hasieratik azpi inuti hardirik hartuko zaitrik dira. Baina gainerakok, berri, inuti angonarik dira. Aurki itzazu.



## Zabaldu Kutxa



Agintu mugi gila horietako behaketa. Bakarrak irki dezake zurea. Zein da?

## Ametsetan

Al, si, si. Etxeko lekuak egiten hasi eta leku horietan du Pelloren. Mota-mota erikatzen sartu beharrez, ameta gurean murgildu da gurean. Pelloren ametsen, olergi handietan, gurea bertako benderatu elementu daude. Duteen al dituz?



## Itzala

Zein da Karramarro hori dagoen itzala? Bakarra da zurea.



## Labirintoa

Legenda horari Bizargerriengana helduz. Ezker, eskuin, gora, beheko nahiz diagonalean mugi daitezke, baina AINGURA, KATALOXIA, MAPA edo TXALUPA duten lekuenetik bakarrik pasatu.



## Puzleak

Puzle hau osatzeko hamazazpi pieza dituz. baina hamaka besterik ez dituz behar. Zeintzuk daude soberrak?



## Elkartasuna El Vallenc, Francesc Fàbregas eta ACPCrekin

TOKIKOM, toki komunikabideen bateraguneak, azken orduotan Guardia Zibilak Kataluniako El Vallenc astekaria eta haren zuzendari eta Associació Catalana de la Premsa Comarcaleko presidente Francesc Fàbregasen aurka hartutako neurriak direla eta, honako hau adierazten du

- Elkartasun osoa adierazten diegula hala El Vallenci, nola haren zuzendari Francesc Fàbregasi zein ACPC osoari. Hirurekin ere lankidetzan aritutakoa da TOKIKOM, eta ezin eskertuzko laguntza jaso du haiengandik. TOKIKOM osatzen dugun lagunok gure samina eta kezka ere adierazi nahi dugugertakari larri hauen aurrean.
- Geure egiten dugula ACPCk egin berri duen adierazpen eta eskaria:
  - Begirune handiena informazio eta adierazpen askatasunei.
  - Erredakzio periodistikoek duten pribatasun eta sekretu

profesionalerako eskubideak errespetatu daitezela.

- Hiritar guztien errugabetasun presuntzioa eta, bereziki, Francesc Fàbregasena errespetatu dadila.
- Segurtasun indarrek eta botere judizialek era proportzionatua eta pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatuz joka dezatela.

Gertatutakoa zehatz-mehatz argitzen den bitartean, berriz ere gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu El Vallenci, haren zuzendariari, eta ACPC osoari.

Durango, 2017ko irailaren 9an

### Tokikom

### Eskerrik asko Maite!

Joan zen astean hil zen Maite Narbaiza Azkue, eta Pil-pileanetik gure atsekabea adierazi nahi dugu, herrian euskalzaletasunaren alde egin duen lana publikoki aitortzearekin batera.

Maite Narbaiza Azkue Pil-pilean Euskara Elkartearen bazkidea izan da elkartearen sorreratik bertatik, eta aipatzekoak dira urte guzti hauetan Soraluzeko euskaltzaleen mugimenduari eskaini dion babes eta eman dion laguntza, bai herritar

moduan eta baita buruzagi politiko moduan ere.

Bereziki nabarmentzekoa da Maitek Berbalagun egitasmoko boluntario modura egin duen ibilbidea. Urtetan zehar, euskara praktikatzen zireneko herritarren tertuliakide eta lagun izan da.

Denbora luzean izango ditugu gogoan, euskara berreskuratzeko lanean erakutsi dituzun indarra, ilusioa eta maitasuna!

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko Maite, guri eta beste askori eman diguzun guztiagatik!

### Berbalagunak (Pil-pilean Euskara Elkartea)

### Oharra

Soraluzeko Haurreskolan izen-emate epea urriaren 2tik 9ra bitartean dago zabalik. 2006 eta 2007 urteetan jaiotako haurrek eman dezakete izena. Informazioa: Haurreskolan bertan edo 943751332 telefono zenbakian.

### Soraluzeko Haurreskola

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

### KOMIKI TIRA

Tokikom, toki komunikabideen bateraguneak, genero berdintasunaren inguruan gogoeta eragiteko sortu duen komiki-tira.





**Katalunia** Egilea: P.G.Jon  
Gabilondo**Raciones,  
bocatas...**

Hiriburuan zenbat turista nahi dituzten eztabaidatzen jarraitzen duten bitartean, ireki dituzten modako taberna guztiak berdintsuak dira: itxura, argiztapena, jatekoa... baina hizkuntza-paisaia ere. Orain hilabete, ustez modernoa den gastroteka batean, menua euskaraz eskatu genuen. Erantzun ziguten, aurki, prest izango zutela euskaraz eta ingelesez. Esan genien, herri honetan ingelesa eta euskara ez zirela gauza bera, eta nagusi gazteak euskara jatorrean: *"negozioaren ikuspegitik euskara ez da beharrezkoa"*.

Garai batean, herriko taberna batean irakur zitekeen: *"ez dakizu zein polita dan zu euskaraz entzusia"*. Orain dela gutxi, ondorengoa irakurri dugu: *"raciones, bocatas..."*. Hemen ere, eskatu genien. Euskaraz bizi nahi dugunok aukera dugu euskarari errespeturik ez dieten tokietan ez kontsumitzeko. Gurera datozenei bertakoa dena eta beste inon aurkituko ez dutena eskainiko diegu, benetako bisitariak badira, estimatuko dute-eta.

Gastrotekan ez dute oraindik euskarazko menurik (ezta ingelesezkorik ere). Herriko tabernan, berriz, jarri dute "bokatak eta platerak".





SAPA lantegiaren barnealdea

ERREPORTAJEA

# Eraikin hutsak

Arma fabrikaren pabiloi erraldoiak, torloju lantegiak, enbalaje tailerra... Iraganean industria sektoreak gure herrian izan zuen indarraren berri ematen duten eraikinak dira. Ahaltsoak ziren bere garaian, dekadenteak dira gaur egun. Etorkizunean zer gertatuko da eraikin horiekin?



ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI** TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Azken hamarkadetan, industriaren jardunak nabarmen egin du behera herrian eta gainbehera horren adierazle garbia dira hutsik gelditu diren industria eraikinak. Udalak ia onartu zuen hirigintzako plan orokorrak arautzen du etorkizunean eremu horiek izango duten erabilera.

Alkateak adierazi digunez, industria jarduna hirigunetik ateratzea da irizpiderik

garrantzitsuenetakoa; hori dela eta, hirigune barruko eraikinak, hustu ahala, hirigintza jardueretara bideratuko dira: etxebizitza, parke, aparkaleku... eta abar egitera. Urte batzuk lehenago, irizpide bera ezarri zen *Albesa, Sacia, Amuchastegui...* lantegiekin.

Ostera, badira eraikinak jarduera ekonomikoetarako izendapenari eutsiko diotenak. *Debegesak* jakinarazi digunez, eraikin horiek 2015ean *Sprilurek* eta *Debegesak*



lankidetzan egin zuten Debarrenen inbentarioan daude jasota, gainerako enpresek ezagutu ditzaten.

Ikus dezagun, eraikin nagusien egoera eta izendapena zein den:

- **Amillaga (lehen Embalajes Ansola).** Hed.: 14.886 m<sup>2</sup>. Jab.: Elkargi. Eraikina gero eta egoera kaskarragoan dagoen arren, orube aproposa da industria jardunerako. Proiektu berriak Urak agentziak ezarritako baldintzak bete beharko lituzke. *SPR*ri aurkeztutako industria lurren inbentarioan dago.
- **Sagar Erreka 2 (lehen Indesal).** Hed.: 2.000 m<sup>2</sup> (5 solairu). Jab.: Hiru jabe ditu. Une honetan, eraikinaren azpiko solairuan bakarrik dago aktibitatea. Plan orokorrak babestu beharreko eraikin industrial moduan izendatu du, beraz, ezin da bota, eta jardun ekonomikora bideratu behar da. *SPR*ri aurkeztutako industria lurren inbentarioan dago.
- **SAPA.** Hed.: 13.707 m<sup>2</sup>. Jab.: SAPA. 12 urte dira itxi zela eta gero eta egoera kaskarragoan dago. Plan orokorrean zehaztuta dago bertan zer eraikiko den: parkea (zubi ondoko eraikinetik eraikin zentralerako tartean), 90 etxebizitza eta aparkalekuak (mendi aldeko pabilloietan). Gestioak etengabekoak dira, baina oraindik ez dago ezer adostuta



- **Ola aldea.** Hedadura: 8.796 m<sup>2</sup>. Jabetza: Partikular ugari. Hirigintza planak, gaur eguneko eraikinak bota eta etxebizitza gune bihurtzea aurreikusten du, pasabidea ibai aldetik eraikita. Urte amaierarako erredaktatuko dute plan berezia, dirulaguntza deialdietara aurkeztu ahal izateko.
- **Pascual Churruca.** Hed.: 4.946 m<sup>2</sup>. Jab.: Lehiaketako hartzekodunak. Plan orokorrak etxebizitzak eraikitzeko lur moduan izendatu du.

# Gerdau Gasteizera doa



Sidenorrek Maltzagan dituen pabilioiak Soraluzeko lurretan daude

Sidenorrek adierazi digunez, abenduan geldituko dute ekoizpena Maltzagako lantegian eta urtarrilean ekingo diote makinak Gasteizera lekualdatzeari. Erabakia Sidenorrek hartu du, herrian Gabilondo eta Gerdau izenekin ezagutu den lantegiaren jabea den enpresa espainiarra. Gaur egun 41 pertsonak lan egiten dute Maltzagan – horietatik, langile bakarra da soraluzetarra –, eta guztiak

berkokatuko dituzte Gasteizko plantan.

Gaur egun Sidenor izenarekin ezagutzen den lantegia Eibarko Gabilondo familiak sortu zuen 1956. urtean. Garai hartan, pertsianen mekanismoak ekoizten zituzten bertan. Familia eibartarrak 2008ra arte eutsi zion enpresaren jabetzari, urte horretan, Sidenorrek erosi zion Gabilondo Hermanosi. Ondoren, enpresa Gerdau enpresa

brasildarraren eskuetara pasatu zen, eta, azkenik, iaz, zuzendaritzakoen ekimenez, Sidenorrek erosi zuen berriz ere.

Azken urteotan, lantegiak altzairugintza arloan dihardu. Altzairuzko barra kalibratuak ekoizten dituzte, automozio eta eolikoaren sektoreetarako. Etorkizunean ere horretan jarraituko dute, baina Gasteizen.

## Prestakuntza, etorkizunerako gakoa



Jon  
Aldazabal

Badirudi Euskal Herrian etorkizuna izango duen industria espezializazio-maila handikoa eta punta-puntako teknologiaduna izango dela; hau da, arlo horietan zerikusia duten zerbitzuetako lanpostuek izango dute etorkizuna, softwarearekin,

digitalizazioarekin eta komunikazioaren bilakaera berriei erlazionatutakoek. Horiez gain, eta, bereziki, zerbitzu sektoreari dagokionez, orain laugarren sektorean kokatuko genituzkeen hainbat eta hainbat beharrian sozial hobetzera zuzendutako enpresa eta lanpostuak ere ugarituko dira etorkizunean.

Hala ere, ez gara lortzen ari lanpostu berriak eta kalitatezkoak sortzea, ez bahintzat, automatizazioak eta kontestu globalak lanpostuak desagerrarazten dituen abiadura berean, nahiz eta helburua hori izan.

Beraz, etorkizuneko erronken artean honako hauek ditugu: enpresak lehiakorrek izaten lagunduko duten pertsonak prestatzea eta kudeaketa-praktika aurreratutak ezartzea; haien arteko arteko elkarlana sustatzea; kalitatezko enpleguak sortuko dituzten enpresa berriak eratzea; eta, bereziki, pertsonen etengabeko prestakuntza eta formazioaren eragitea. Horretarako, gizartearen eta instituzioen inplikazioa behar da baina baita norberaren erantzunkizuna ere badela dela kontutan hartzea.

## EZAGUTU GURE ESKAINTZA

- \* Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukera.
- \* Goi Mailako Zikloetara sarizeko prestakuntza.
- \* Ingelesa.
- \* Frantsesa.
- \* Informatika.
- \* Euskal Artea.



Lamin Sonko nair eta 33 urte ditut. 2013an etortu nintzen eta lehenbizialak euskara ikasten hasi nintzen. Ondoren gaitasuna ikasi nuen Hezkun Eskolan. Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu dut eta orain Altona Institutuan erdi mailako gradu bilt egin nahi dut lanean hasiako.

LAMIN SONKO 33 urte  
(Gambia)

## ETORRI INFORMA- TZERA ETA BIDERA- TUKO ZAITUGU, EGBko titulua ez da nahikoa Lanbide Heziketan sartzeko.

Doakoa eta  
ikastetxe publikoen  
berme guztiekin.



Langabezian nengoenez, Hezkun Eskolara hurbikatu nintzen. Bigarren Hezkuntzako graduatua ateratzeko asmoz eta bertako ikasleek goi mailako jarraia-proba prestatzen animatu ninduten. Oso harro nago biak lortu ditudalako. Nire asmoa ikagien jarraitzea da.

M<sup>o</sup> LOURDES ALBERDI 57 urte  
(Bergara)

## BERAIEK BEZALAKO PERTSONAK PRESTATZEN DITUGU

18 urte baino gehiago badituzu, ez laga aukera pasatzen. Atera ezazu Bigarren Hezkuntzako Graduatua eta zabal itzazu formatzeko eta lana topatzeko aukerak



Bigarren Hezkuntzako graduatua atera dut Hezkun Eskolan eta orain Unibertsitateko sarbide-proba prestatu nahi dut, ondoren "Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza" ikasteko.

LOBNA EL OUANABI 26 urte  
(Maroko)

## BAZATOZ IKASTERA?

Bergara: Irizar Jauregia, Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52  
Oñati: Larraña Institutoa, San Lorenzo auzoa. Tel.: 943 78 35 77  
Soraluze: Baltegieta 18. Tel.: 943 75 30 17



# Maraskilo Tour arrakastatsua



Irailaren 16an, laurogeiren bat mendizalek parte hartu zuten herriko mendi martxaren 11. edizioan. Eguraldiak ateri eutsi zion, eta mendizaleek gozatu ederra hartu zuten.

Mendizale batzuek antxintxika egin

zuten ibilbiderik gehiena eta lau ordu eta erdi pasatxotan burutu zuten ibilbidea. Erlantz Zaldunbide iurretarra izan zen Plaza Barrira lehenengo heldu zena, eta atzetik heldu ziren Ander De Luis eta Joseba Garcia soraluzetarrak.



## Mendirako hitzorduak

Mendi taldeak hainbat irteera antolatu ditu urrirako. Urriaren 8an San Brinkola-Zegama ibilbidea egingo dute, urriaren 22an, Gipuzkoako finalista egunera joango dira Oreretara, eta urriaren 29an, herriko finalista eguna ospatuko dute San Andresen babajana eginda.

## Soraluzetarrak indartsu bola txapelketan

San Andres taldeko Iñaki Burunza eta Josean Nuñez, bigarren eta laugarren sailkatu ziren joan zen zapatuan Azkoitiko Floreaga bolalekuan jokatu zen kanporaketan. Hurrengo kanporaketa urriaren 7an jokatuko da, Markinako Mariña bolalekuan.

## Sorak makal hasi du denboraldia

Joan zen asteburuan jokatu ziren lehen jardunaldiko partiduak, eta Sorako hiru taldeek galdu egin zuten, aurkariaren gol zaparradarekin gainera. Kadeteek 0-9 galdu zuten Elgoibarren aurka, jubenilek 6-1 Antzuolan, eta preferente mailako taldeak 2-4 Tolosaren kontra.

**IZKUGIRRE**  
Igeltzeritza



Erakin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 649 867 280

**ARRANO**  
taberna

Etan! eta gaztea  
etxeko gintxoak



Etakaburuta 6  
Telefona: 943 75 24 09

**AURREZTU ENERGIA**

Berota ura eguzki izpiekin  
edo oliarekin

fontaneria  
**San Andres**  
Iturgintza



629 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

**Hortz klinika**

27 urteko  
esperientzia

Javier Alamo K.Z. 46.000.505  
Karlo Cuatrecasas K.Z. 46.001.548

Irak: gaitako anestesio,  
odontologia orokorra,  
primo foroa eta mugimena,  
odontopediara, ortodontia,  
ipertsoa, estetikoa...

Enabal 1 - Tel.: 943 75 76 13



sutarako egurra salgai  
pago-egurra, haritz-egurra...

**SUMA**  
basolanak

img. 635 73 34 08



**JUAN MARI**  
ARRANDEGIA

Arrate txikiak  
Etxera eramaitako zerbitzua  
Eskari guztiak ditugu

MEZKATI PLAZA - 943 75 24 48



**KLB6**

Kalebarren 6  
943 57 76 28

Mulero eta nesken  
modulugaitza

Alpa Jarna  
**INFLANO**  
MAISON MARTIN MARGIELA  
VERO MODA



Jaietaren plazarrera, bertan! bertan!

**Batzoki**  
RESTAURANTEA

eguneko menua  
antzerkuztasun  
kanta eta raiakak

ogitartekoak eta  
hamburgesak  
entzuga berriak

Emilia eta  
Jagorri arteko  
beharriak

Donostia 943 75 20 35



**Kontulan**  
abokatuak

Errentea, zitargenak, Administrazioa lanak  
Traffikoa burularitza Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen konstituzio/abokatuak Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. eta. 20190 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zuro-gaitako hortz klinika,  
puntu puntako teknologekin lan  
egiten dugu. Cad-Cam sistema  
bertan! bertan! erabiltzen dugu.

Elizburua, 3 beheak  
SORALUCE  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiraldera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



**TXOKO**  
KAFETEGIA

Eguneko menua,  
raziokak, plater  
konbinatuak,  
hamburgesak,  
ogitartekoak,  
gosaia, pizzak...

Kalebarreneko  
kale kartolan  
Tel. 943 75 17 89

Enkarguak  
egiten dira



**KM design**

KITIA MUNTAKA

943 76 99 85

Disinu eta Fabrikazio lanak

Sukalderak  
Horma-oinarriak  
Logotipoak  
Zoruak  
Ateak...

Arotzeria lanak oro har  
Instalazioak

kitiumuntaka@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pof. Ardiaga 5  
BERGARA

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosaia

Astelehenetik  
ostiraldera:  
09:00 - 13:15  
17:00 - 20:00  
Larunbetak eta  
igandeak  
08:00 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** **Aras** **ALBISUA** **laibi** **SORALUCE**  
ELECTRICIDAD

# Hamaika urteren ostean, berriz Soraluzen



Zapatu gauean, Orioko bardoak kontzertua eskainiko du Kiroldegiko Frontoian, orain dela 11 urte jo zuen leku berean. Oraingoan, berrogeita hamar urteko ibilbidea ospatzera dator, eta beste bederatziz musikarirekin batera oholtzaratuko

da. Argitaratu duen azken diskoko -Oroimenaren oraina- kantuekin batera, bere kanturik ezagunenak ere joko dituela iragarri du. Galdu ezinezko aukera euskal kantagintzako izen handienetarikoaren talentuaz gozatzeko.

# Helduendako bertso eskola abiatuko dute



Urriaren 14a Bertso Eskola ipiniko dute martxan -izena behin behinekoa ei da-, "bertsoaren bueltan elkarrekin gozatzeko" helburuarekin. Lehen aldia izango da herrian helduendako bertso eskola abiatuko dena, izan ere, orain arte herrian antolatu izan diren eskolak gaztetxoei begira antolatu izan dira beti.

Urriaren 4an, egingo dute lehenengo juntadizoa. Arratsaldeko 19:00etan batuko dira bertso eskolaren egoitzan (AEKren lokaletan), eta bertan erabakiko dituzte eskolaren ezaugarriak zein izango diren

# Fandango eta arin-arin ikastaroa

Urrats dantza taldeak ikastaroa antolatu du fandango eta arin-arin dantzak ikasteko. Helburua, noski, herritarrei dantzok ikasteko aukera ematea da, ondoren erromerian parte har dezaten.

Ikastaroa barixaku honetan hasiko da, eta azaroaren 10era bitartean, barixakuero egingo dira saioak, arratsaldeko 19:15etik 20:45era bitartean, herri ikastetxeko aretoan. Izen ematea debaldekoa da.

# Musika eskolaren eskaintza berritua

Urriaren 2017-2018 ikasturteko eskolak hasiko ditu Musika Eskolak. Talde instrumentalak, banda eta konboak eskainiko dituzte 9 urtetik gorakoentzat eta nagusien trikitixa taldea zabalik izango da 16 urtetik gorakoentzat. Eskolen iraupena 45 minutukoa izango da, eta kuota, 11 eta 15 euro artekoa.

Oraindik ere badago aukera izena emateko, instrumentu bat jotzen ikasi edota partiturak irakurtzen trebatzeko. Ez dago adin mugarik eta eskaintzen diren jarduerak ondorengoak dira: musika hizkuntza, umeen abesbatza, klarineta, saxofoia, biolina, pianoa, gitarra, baxua, gitarra elektrikoak, perkusioa-bateria, trikitixa, panderoa, txistua, gaita, flauta, tronpetak, tronboia, bonbardinoak.



**EZ DOK HIRU**  
EUSKAL MUSIKAREN BENETAKO HISTORIA



**Urriak 20, ostirala, 22:15**

Kopainia: Tartean.  
Egilea: Patxo Telleria.  
Antzezleak: Mikel Martínez, Patxo Telleria.  
Zuzendaria: Jokin Oregi.

## OSTEGUNETAKO PELIKULAK

Gaueko 9:00etan Antzokian

### COMANCHERIA

URRIAK 5



Zuzendaria:  
David Mackenzie  
Herrialdea:  
EEUU  
Urtea: 2017  
Iraupena: 102 min  
Hizkuntza:  
Gaztelania

### SEÑOR DAME PACIENCIA

URRIAK 19




Zuzendaria:  
Álvaro Díaz  
Herrialdea:  
Espainia  
Urtea: 2017  
Iraupena: 91 min  
Hizkuntza:  
Gaztelania



SORALUZEGO  
UDALA  
Kultura Batzordea

# Hasier Ugarte

## Soraluzetik Bartzelonara



1. Lagun batzuekin Venezian.
2. Laura, bikotekidearekin, oporretan.
3. Bizikleta irteera Bartzelonan.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO  
Bartzelonan bizi da duela 10 urtetik. Informatika ikasketak amaitu ostean joan zen, bizimodu berri baten bila, eta, ordutik, bertan bizi da.

### Zelakoa da hirian bizi izatea?

Oso desberdina da. Momentu batzuetan asko gustatzen zait eta beste batzuetan inpersonalegia iruditzen zait.

Hirian bat gehiago zara. Nik lau urte daramatzat pisuan eta ez dakit auzoko bizilagunak inoiz ikusi ditudan. Horrek batzuetan pentsarazten dizu.

### Gainerakoan, Bartzelona zelakoa da bizi izateko?

Nik uste dut hiri ona dela bizi izateko, eroso. Milioi bat eta erdi biztanle inguru dituen hiria da, baina erraza da mugitzeko, garraio publikoa oso ona da eta. Gainera, eguraldi hobea egiten du. (Barreak) **Zu zeu zela moldatzen zara katalanez?**

Berba, ondo, idatziz, EGA ateratzeko beste ez, baina moldatzen naiz. Ni heldu nintzanean, bi ikastaro egin nituen CPNLn (Centro Para La Normalizacio Lingüística), lehenengo mailak debaldekoak dira. Gero, pisukideekin eta

## “Bozkatzeko asmoa dut, aukera hori ezin da galdu”

bikotekidearekin jardunez ikasi dut, poliki-poliki.

### Erreferendumarena zela bizi duzu?

Nire inguruko jendearengan ilusio handia ikusten dut, atzerritarrengan ez horrenbeste, eta komunikabide eta politikarien aldetik zirko larregi. Urte asko daramatzagu Katalunian eta Euskal Herrian gai horrekin bueltaka eta inoiz ez dugu horren urrin heltzeko aukerarik izan. Eguna heltzeko zain nago, ikusteko zer gertatzen den.

### Bozkatzeko asmoa duzu?

Bai. Aukera hori ezin da galdu. Orain dela bi urteko galdeketa izan nintzen eta oso polita izan zen.

### Baduzu asmorik noizbait Soraluzera bueltatzeko?

Idearik ere ez. Ez dut autorik, ez etxerik, ez seme-alabarik, beraz, pentsatuko dut. Faltan somatzen dudana da euskaraz egin ahal izatea. Lehen gehixeago joaten nintzen Euskal Etxera, baina orain gutxiago.

**% 100 AFEKTIBOA**



**Matrikula zabalik**  
**2017/18 ikasturtea**  
**EUSKARA IKASTAROAK**  
**CURSOS DE EUSKERA**

**EUSKALDUNTZE OROKORRA** (aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

**IKASTARO BEREZIAK** (aurrez aurrekoa)

- B1 / B2 / C1 MAILA (EGA)
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, IRALE, OSAKIDETZA

**ON LINE**

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- C1 eta C2 Mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

**Eman  
izena**  
Matricúlate

Ayudas del ayuntamiento desde el 50% hasta el %100 del coste de la matricula  
**Udalaren laguntzaz BEKA SISTEMA**

**Soraluzeko AEK Euskaltegia**  
Arane Kiroldgia (Liburutegi parean)  
943751434 · soraluze@aek.eus

# Plazentziatarrak munduan

Pierre Lhandek 1910ean idatzitako “*L’émigration Basque*” libururen sarreran zioenez, benetako euskalduna izateko hiru gauza behar ziren: ahoskatu ezineko abizena izatea; Aitorren semeen hizkuntza menperatea; eta... Ameriketara osaba bat izatea.

ARGAZKIAK ETA TESTUA:  
**BENAN OREGI**

Euskal diasporarekin egiten dudanez lana, ia hogeitun urtean behin baino gehiagotan tokatu zait plazentziatarrekin tope egitea han-hemenka, euskal etxean inguruan.

Holaxe ezagutu nuen, urriaren 6 batean, Iñaki Larraza Alberdi, Txileko Santiagoko euskal etxean nire urtebetetzea ospatzen ari nintzen batean, alboko mahaitik etorri zitzaidanean. Hizketan hasi, eta bere aitaita, Benito Alberdi, eta nire aitaita, Benanzio, lagun minak izandakoak zirela jakin nuen, eta gure aitaitak barkura ere lagundu omen zion Benitori.

Beste batean, Boiseko Jaialdian nenbilela, hara non entzuten diodan bati, euskal etxeko tabernan, esaten plazentziatarra dela. Nor izango eta Jon Elizburu pilotari ohia, Las Vegasen bizi zena.

Halaxe ezagutu nituen Miren Loyola eta bere senar Jon Zugadi ere, Buenos Aireseko euskal etxean. Etxean entzunda neukan nola joan ziren Euskal Herriatik Argentinara, eta nola gure amamari eskerrak ematera etorri zen euren aita, seme-alabekin Ameriketara abiatu aurretik.



Buenos Airesko Laurak Bat euskal etxeak 140 urte bete ditu aurten. Munduan sortu zen lehenengo euskal etxead.

Orain, asko izango dira kanpoan bizi diren Soralezetarrak, mundua hainbeste txikitu da... Nik badut harremana batzuekin: Argentinan dagoen Ioseba Gorostidirekin, Finlandiako Lourdes Pastorizarekin, Kanadan dagoen bere alabarekin... Mundua txikitu egin da: gaur egun aukera ugari izaten da ikastera edo lanera kanpora joateko, eta joan-etorrikoak izaten dira gehienetan bidaiak (urteko usoen pasea bezala). Orain ez dugu imajinatu ere egiten zela ama batek betiko agurtu zezakeen bere semea edo alaba.

**“Orain ez dugu imajinatu ere egiten zela ama batek betiko agurtu zezakeen bere semea edo alaba”**

# Miren Loyola, Buenos Airesen bizi zen plazentziatarra



Abuztuaren 30ean hil zen Miren Loyola Buenos Airesen, gaixotasun luze baten ondorioz. Miren 1950eko otsailaren 26an iritsi ziren Argentinara, 19 urterekin, bere aita, Jose Loyola, eta bi anai-arreba gazteagoekin batera: Jaione (M<sup>a</sup> Jesus), 17 urtekoa eta gazteena, Javier, 10 urtekoa.

Bizimodu berri baten bila joan zen familia soraluzetarra eta berehala murgildu ziren Buenos Aireseko giro euskaldunean. Iritsi eta laster, Mirenek bere senarra izango zen Jon Zugadi bizkaitarra Euzko Txokoko dantzaldi batean ezagutu zuen.

Aurten 140 urte bete dituen Munduko euskal etxerik zaharrena den "Laurak Bat"eko kide izan da Jon Zugadi 1948 urtetik, eta bertan pilotari eta muslari bezala nabarmendu zen gaztetan.

Euskal giro horretan parte hartzen jarraitu zuen Mirenek eta Jonek urte guzti hauetan, eta horrela jarraitzen dute euren hiru seme-alabek ere: Jon, Maite eta Maria Jesus Zugadi Loyolak.

## “Mirenen familia bizimodu berri baten bila joan zen Argentinara”

Soraluzen hainbat lagun utzi zituen Mirenek, horien artean, Felisa Idigoras, Igone Izagirre eta Lore Juaristi. Baina ez zen betirako joan. Izan ere, haurrak txikiak zituela itzuli zen familia osoa Soraluzera, 1970 urtean, lehen aldiz, eta ondoren; 1974, 1976 eta 1994 urteetan, berriz.

Gaixotu arte harremana izaten jarraitu zuen bere lagunekin, eta Plazentziatarra izaten jarraitu zuen bitzta osoan. 2001-2002 urteetan Argentinan “Corralito”a gertatu zenean Miren Loyolari egindako elkarrizketa argitaratu zen Pil-pileanen, beraz, Soraluzeko antena ere izan zen Argentinako kontuak kontatzeko, aldizkari honetan.

Hemendik gure nahigabea adierazi nahi diogu Mirenen sendi osoari. Goain Bego.



1. Miren eta Jon familia osoarekin.
2. Miren eta Jon gaztetan.
3. Miren eta Jonekin Argentinara egindako bisita batean.


ZORION AGURRAK



**Ekaitz Garmendia**  
Abuztuaren 17an, 8 urte. Zorionak maitxia! Etxekoen partez.




**Maren Etxabe**  
Abuztuaren 23an, 10 urte. Zorionak prexioxa, eta patxo haundi bat. Familia guztiaren partez.




**Dolores Ordax Prieto**  
Irailak 7an, 99urte! Segi horrela, maite zaitugu! Muxu pila, etxekoen partez.



**Josu Leturiondo Garcia**  
Irailaren 9an, 10 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



**Ander Pastoriza Galdos**  
Irailaren 21ean, 13 urte. Zorionak artista! Argateko lagunak.



**Ion Gallastegi**  
Irailaren 1ean, 28 urte. Zorionak! Familiaren partez.




**Maren Aldazabal Castillo**  
Irailaren 25an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoen eta, bereziki, Sararen partez.



**Maren Agirre**  
Abuztuaren 14an, 10 urte. Zorionak! Etxekoen partez.



**Aiora Sudupe**  
Uztailaren 15ean, urtebete. Zorionak! Etxekoen partez.



**Joanes Arantzeta Goenaga**  
Abuztuaren 8an, 5 urte. Zorionak Joanes, asko maite zaitzugu!



**Itziar Agirre eta Iñaki Larrañaga**  
Abuztuaren 15ean eta irailaren 7an, 44 eta 50 urte. Zorionak! Etxekoen partez.




**Jone Zubiaurre Unamuno**  
Irailak 19xan 7 urte. Zorionak potxola! Muxu haundi bat etxekoen partetik!



**Eukén Mendiá Hernáez**  
Urriaren 2an 9 urte!! Zorionak mutil haundi!! Patxo haundi bat etxekuen partez!!




**Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz**  
Irailak 4 eta 23an 6 eta 2 urte. Zorionak bikote! Gure bizipoza zarete. Patxo handi bana etxekuen partez.



**Izaro eta Markel Rodríguez eta Javier Aparicio**  
Uztailak 23, 30 eta 22an. Zorionak hirukote!! Askok maite zaituztegu. Etxekoen partez.



**Aiuri eta Peru Gisasola**  
Zorionak bikote! Udan 7 ta 9 urte bete dozue! Maitte zaituztegu. Etxekuak



**Peru Soriano Sebal**  
Irailaren 27an, urtebete. Aupa gure txikitxo alaia! ZORIONAK! Patxo potolo bat familia guztiaren partez.



**Sugar Ostolaza Lakuesta**  
Abuztuaren 10ean, 8 urte. Zorionak polixori! Askok maite zaitzugu! Iraultza, Aetz eta Lahan partez!

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Jaiotakoak**

Magaly Morales Mendikute  
Malen Blanco Azcona  
Matias Mancha Jimenez  
Javier Aguirregomezkorta Ojeda

**Hildakoak**

Maite Narbaiza Azkue  
Antonio Oregi Oregi  
Romulo Gonzalez Lorenzo  
Jose Ramon Arizaga

## JAIOBERRIAK



**Sara Aldazabal Castillo**  
Abuztuaren 21ean jaio zen.



**Uxue Oregi Latasa**  
Ekainaren 16an jaio zen.



**Matias Mancha Jimenez**  
Abuztuaren 8an jaio zen.

## ESKELAK

## I. URTEURRENA

**Jose Luis  
Lasa**



2016ko abuztuaren 16an hil zen.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

*Etxekoak*

## AGURRA

**Maite Narbaiza  
Azkue**



Irailaren 17an hil zen, 71 urte zituela.

Euskaltzalea, ekintzailea, arretatsua, berdinzalea...  
Gure berba-laguna eta laguna.  
Maite zaitugu!

*Zure berbalagunak (Pil-pilean Euskara Elkartea)*

## I. URTEURRENA

**Martin Iñurrieta  
Goikoetxea**



2016ko urriaren 11n hil zen, 89 urte zituela.

Maite zaitut oraindik.

*Porfi*

## I. URTEURRENA

**Maria Urizar  
Murua**



2016ko irailaren 7an hil zen, 96 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzetan!  
Urteureneko meza, irailaren 30ean izango da,  
arratsaldeko 19:00etan.

*Etxekoak*

# Bizikale azoka

10:00-14:00

**Merkatarien  
azoka**

Eskaintza bereziak

13:00

**Paella  
dastaketa** 1€

Erosketa eginez gero, debalde

16:00

**Mus  
txapelketa**

18:00

**Zezentxoak  
eta poniak**

19:00-21:30

**Pintxo  
dastaketa**



**urriak 7  
larunbata  
plaza zaharrea**



ICOMPRAR  
EN EL PUEBLO  
DA VIDAI



EMAN  
BIZIA. EROSI  
HERRIAN

